



FIESTAS DE SANGÜESA



ZANGOZAKO JAIK

KARTEL LEHIAKETA 2023

1. LEHIAKETAREN HELBURUA

Lehiaketaren helburua 2023ko Zangozako zaindariaren jaiekin zerikusia duen kartel bat aukeratzea da.

2. MAILAK

Bi maila ezartzen dira: Helduak eta 16 urtetik beherakoak.

3. OBREN BALDINTZAK

Obrek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Jatorrizko lanak eta argitaragabeak izatea, eta lan osoan edo zati batean ez izatea beste artista batzuen lanen, argazkien, kartelen eta pinturen kopia, plagio, birsorkuntza edo aldaketa, edozein modalitatetan argitaratuak.
- Ez dira onartuko Zangozako Kartel Lehiaketaren beste edizio batzuetan aurkeztutako kartelak.

4. AURKEZTEKO EPEA

Obrak aurkezteko epea maiatzaren 2an irekiko da eta 2023ko ekainaren 2ko 14:00etan amaituko da. Obrak Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultur Etxera aurkeztu edo bidali beharko dira. Alfontso Borrokalariak karrika 20. 31400 Zangoza. Epea ezin da luzatu.

5. AURKEZTEKO BALDINTZAK.

5.1 HELDUEN maila

- Euskarri zurrun baten gainean jarri beharko dira, eta 60 cm-ko altuera eta 42 cm-ko zabalera izan beharko dute. Neurri horiek ez dituzten lanak ez dira onartuko.
- Kartelean testu hau agertu beharko da:
- FIESTAS DE SANGÜESA/ZANGOZAKO JAIK 2023.
- 11-17 Septiembre/Iraila,
- baita hiriko udal armari ofiziala ere, posta elektronikoz honako helbide honetan eskatu ahal izanen dena: infocultura@sanguesa.es. Udalaren armari ofiziala duten kartelak baino ez dira onartuko.
- Egilearen sinadurarik gabe aurkeztuko dira.
- Obrak egiteko prozedura askea izanen da.
- Kartelarekin batera, gutun-azal itxi bat aurkeztu beharko da, eta horren kanpoaldean aurkeztutako obraren izenburua agertuko da. Barruan idatziz jasoko dira egilearen datu pertsonalak: izena, abizenak, helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa, NANaren fotokopia, adina eta sinatutako aitortpena, oinarri hauek jasotzen dituen I. eranskineko ereduaren arabera.



- Kartelak behar bezala enbalatuta etorri beharko dira.
- Egile bakoitzak nahi adina obra aurkeztu ahal izanen ditu.

5.2 16 URTETIK BEHERAKOEN maila

- A3 formatua izan beharko dute (29,5 x 42 cm). Neurri horiek ez dituzten lanak ez dira onartuko.
- Kartelaren beheko eskuineko izkinan, parte-hartzailearen adina ikusi beharko da.
- Kartelarekin batera, gutun-azal itxi bat jarriko da, eta horren kanpoaldean, aurkeztutako obraren izenburua eta zein mailatara aurkezten den adieraziko da. Barruan, idatziz jasoko dira egilearen datu pertsonalak: izena, abizenak, helbidea, telefonoa, NANA (hala badagokio) eta lehiakidearen eta legezko tutorearen helbide elektronikoa.

6. SARIAK

- HELDUEN MAILARA aurkeztutako kartelek 700 €-ko sari bakarra jasotzeko aukera izanen dute. Sari hori Udalaren Aurrekontu Orokorreko 3385 2262008 partidaren kontura finantzatuko da. Zenbateko horri PFEZaren kontzeptuan dagokion atxikipena aplikatuko zaio.
- 16 URTETIK BEHERAKOEN MAILARA aurkeztutako kartelek 100 €-ko sari bakarra lortu ahal izanen dute sarituek hiriko edozein establezimendutan erosi ahal izanen duten eskola-erabilerako materialean (informatikoa, kirolekoa...). Erosketa egiteko epea 2023ko irailaren 11tik abenduaren 15era izanen da. Finantzaketa Udalaren Aurrekontu Orokorreko 3385 2262008 partidaren kontura eginen da.
- Sari-banaketa 2023ko irailaren 11n eginen da, Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, San Sebastianen omenezko zaindariaren jaien hasiera-egunean.

7. EPAIMAHAIA

Epaimahaiaren osaera

Epaimahaia honela osatuko da:

Lehendakaria. Kultura eta Festen Batzordeko lehendakaria

Kideak:

Udaleko talde politiko bakoitzeko Kultura eta Festetako Batzordeko kide den zinegotzi bat. Kultura eta Festetako Batzordeko kide diren zinegotziek ordezkaritza eskuordetu ahal izanen dute, baldin eta Kultura Teknikariari idatziz jakinarazten badiote epaimahaia biltzeko adierazitako eguna baino 7 egun lehenago gutxienez.

Idazkaria: Kulturako teknikaria (hitzarekin baina botorik gabe)

Epaimahaiaren erabakia

Epaimahaiaren erabakia 2023ko uztailaren 3a baino lehen jakinaraziko da. Epaimahaiak lehiaketa hut-sik uzteko aukera izanen du.



8. SARITUTAKO LANEN JABETZA INTELEKTUALEKO ESKUBIDE EKONOMIKOEN JABETZA

Sariak ordainduta, Zangozako Udalak kartel irabazleak erosi eginen ditu, eta saritutako egileak edo egileek Zangozako Udalari emanen diote saritutako lanari datxezkion jabetza intelektualeko eskubide ekonomiko guztien jabetza eskusiboa, eta askatasunez egin ahal izanen du kartela ustiatzeko edozein modu, hala nola erreprodukzioa, banaketa publikoa edo eraldaketa, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bateginaren 26. artikuluan adierazitako epean.

Obra edozein bitarteko edo euskarri ukigarri edo ukiezin bidez adierazteko eskubidea izanen du, ustiapen-modalitate guztiak barne, edozein euskarri edo formatutan erreproduzitzeko eskubideak barne, bai eta obra banatzeko eta jendaurrean komunikatzeko eskubideak ere, merkataritza-ustiapenerako.

Berariaz sartzan dira obrak online emititzea eta transmititzea eta internet moduko sare digital interaktibo bidez eskuragarri jartzea. Era berean, Udalak erreproduzitutako kartela merchandising-eko edozein euskarriaren gainean ustiatu ahal izanen du, zuzenean edo hirugarren bati ustiapena baimenduz.

9. AURKEZTUTAKO KARTELEN ERAKUSKETA

- Zangozako Udalak erakusketa bat antolatzeko eskubidea izanen du, aurkeztutako kartel guztiekin edo batzuekin.
- Erakusketaren data helduen mailara aurkeztutako lanen egileei jakinaraziko zaizkie. Obra horiek erakusketan agertuko dira, izenburua eta egilea adierazita.
- Egileek kartelak erretiratu ahal izanen dituzte Zangozako Kultura-etxearekin harremanetan jarriz, erakusketa itxi eta hilabeteko epean. Epe hori igarotakoan, egileek uko egiten dietela ulertuko da, eta erreklamazio edo kalte-ordainerako eskubide oro galduko dute. Kartelak bidaltzeko eta itzultzeko gastuak lehiakideek ordainduko dituzte.
- Zangozako Udalak ez du bere gain hartzen balizko kalteen, galtzeen eta obren itzulketaren erantzukizunik lehiaketa amaitu ondoren.

10. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Lehiaketan parte hartzearen ondorioz bildutako datu pertsonalen arduraduna Zangozako Udala da. Datuak lehiaketa kudeatzeko erabiliko dira, 679/2016 (EB) Erregelamenduaren 6.1.e) artikuluan oinarrituta. Aplikatu beharreko araudiaren arabera gordeko dira (51/2016 Foru Agindua, ekainaren 14koa, Kultura, Kirol eta Gazteriako departamentuburuarena, Toki-erakundearen dokumentuak ebaluatzeko eta ezabatzeko jarraibideak onartzen dituena).

Identifikazio-datuak komunikabideei utzi ahal izanen zaizkie, eta udalaren web gunean eta Udala presente dagoen sare sozialetan argitaratu ahal izanen dira. Titularrek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta aurka egiteko eskubidea baliatu ahal izanen dute, beren egoera partikularrekin zerikusia duten arrazoiengatik.

Hori guztia Udalera joz egin ahal izanen dute, eta han eskubide horiek erabiltzeko ereduak emanen dizkiete, web gunearen bidez edo dpd@sanguesa.es helbidean. Era berean, eskubidea dute Datuak Babesteko Espainiako Agentzian (aepd.es) erreklamazio bat aurkezteko, tratamendua indarrean dagoen araudiarekin bat ez datorrela uste badute.



11. HELEGITEAK

Lehiaketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek erabat onartzen direla.

Oinarri hauen eta horiek betearazteko hartzen diren administrazio-ebazpenen aurka, nahi izanez gero, honako helegite hauek aurkez daitezke:

- Berraztertze errekurtoa jartzea administrazio-egintza egin duen udal organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera edo, hala badagokio, errekurritzen egintza argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
- Gora jotzeko helegitea Nafarroako Administrazio Auzitegian, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hilabeteko epean.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtoa Nafarroako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.



I ERANSKINA

KARTEL LEHIAKETA ZANGOZA 2023 HELDUEN MAILA

IZEN-ABIZENAK

HELBIDEA

NAN

HERRIA

POSTA-KODEA

PROBINTZIA

E-MAILA

TELEFONOA

Egileak adierazten du jatorrizko obra eta argitaratu gabea dela, eta ez dakarrela lan osoan edo zati batean beste artista batzuen lanen, argazkien, kartelen edo pinturen kopia, plagio, birsorkuntza edo aldaketarik, edozein modalitatetan argitaratuak, eta ez dela Zangozako Kartel Lehiaketaren beste edizio batean aurkeztu.

Sinadura: